

THE WESTERN BASQUE FESTIVAL-A:  
MORFOLOGIA ETA EDUKIA  
TRADIZIOAREN ASMAKETAN

Kepa Fdz. de Larrinoa

---

*1959. Urtean Sparks Renoko hirian burutu zen Euskal Herriko musika kirola eta dantzak erakutsi zituen jaialdi bat. Antoiatzaileek Estatu Batuen Mendebaldean bizi ziren euskaldun guztiak erakarri eta bildu nahi izan zituzten honenbestez. Artikulu honek bi angelu desberdinetatik aztertu du delako jaialdi hura; forma edo morfologia, lehenik; edukin soziala, ondoren.*

*En 1959 se celebró en Sparks, Reno, un festival con música, deportes y danzas vascas. Sus organizadores pretendían atraer y aglutinar a todos los vascos residentes en el Oeste de los Estados Unidos. Este artículo analiza este festival desde dos ángulos: en primer lugar, su forma o morfología; después, su contenido social.*

*In 1959, a Basque festival took place in Reno, Nevada. A main goal was to attract as many Basque residents as possible, as well as inducing a dynamic participation through dancing, singing and other kinds of folk Basque aesthetics. This paper addresses, first, this festival's morphology; and, second, the social content derived from the social, political and economic process within which it acquires signification.*

## I. KONTEXTU HISTORIKOA

Festibalek, bestelako erritualek bezalaxe, identidadeaz dihardute: besteak beste, pertsonen eta giza taldeen identitatea. Kulturalki emaniko adierazpen sozialak, alegia. Ameriketako euskal jaietan jendeurrera den identidadeari «euskaltasuna» deritzat. Zehatzenago dut, Ameriketako euskaltasun hau zertaz ari den arloari lotzen zait nire ikerkuntzan. Hontaz, textuinguru bereiz batean-historikoki moldaturikoa bait da -adierazia datorren identitate batez dihardut. Ondorioz, «ekintzaz» eta «ezagueraz», festibaletatik darizkienak, ari naiz. Ez naiz jartzen festibalaren barruan bakarrik gertatzen denari begira. Ikusiko denez, zer nolakoak diren jaietatik kanpo ikusten ditugun prozesu sozialak dut erreferentzi puntu funtsezkotzat.

Bi eremu jartzen ditut hartu-emanetan: jaietako «textua» eta «textuingurutat» duen prozesu sozialaren zabalera, non textuak bilatzen bait ditu bere erreferentzipuntuak. Ikusiko dugunez, euskaltasuna ez da ganbiorik gabeko, betiko, identidaderik. Ez European, ez Mundu Berrian. Nonnahiko euskaltasuna, berriz, eztaibada luze, definizio aldakor, eta berdefinizio kontrajarrien ondorengoa da. Eta eztabaidak berak identidadearen aldakortasuna eta dialektika erakusten ditu, definizioaren partea da eta.

Gauregunean Estatu Batuetan ager gaitzkeen festibaletan hango euskaltasuna dasta dezakegu. Dударik ez da. Baina, zertaz ari dira Ameriketako euskaldunak jendeurreko ekintza kolektiboak antolatzen dituenen? Erantzunik emateko, ibilaldi diakronikoa hartuko dut. Zer esanik ez, jaiak eta clubak ez dira, ez ziren, eta ez dira izan, euskaldunen instituzio bakarrak. Hala ere, izugarritzko eragile izan dira gaureguneko euskal identitatea moldatzerakoan. Festibal eta club mugimendu orokorraren atzetik 1959. Eko Western Basque Festival-aren arrakasta dago eta hauxe bera da artikulua honen gaia.

### Dramatis personae

«Nor dira euskaldunak?» dugu Ameriketako Mendebaldean bertan ere maiz entzuten den galdera, non mende batez baino luzeagoz bertakoek ezagutu bait dute euskal jendea hango eskualdeetako artzaintzari erantsita. Gaureguneko Euskalerrriaren buru-jabetasun politikorik ezetik partitzen da nahas-mahasa. Orduan, lau euskal probintzia -Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, eta Nafarroa- España estatuan daude politikoki integratuta, beste hirurak -Lapurdi, Baxenabar, eta Ziberua -Fratziari dagozkiolarik (Douglass and Bilbaok 1975:9).

Dakigunez, Euskalerrria Kantauri itsasoari beha dugu, Pirinioetako bi aldeetara zabaldua, zeinek (mendiek) Frantzia eta Españaiko muga politikoa markatzen duten. Muga hau jarri zenetik, Euskalerrria zatituta geratu da, oro har, bi partetan: alde batetik, Españaiko (Hego) Euskalerrria: bestetik, Frantziako (Ipar) Euskalerrria.

Europako euskaldunek bertako bailera eta eskualdeetako nortasunaren ezaugarri ezberdinei lotu izan zataizkie deboran zehar sendo eta bizkor. Ederki baino ederkiago dakigunez,

ez da bakarrik gertatu ezen auzo, herri, eskualde eta probintzia bakoitzaren izakera berekioa indartu dela banaketa politiko eta administratiboen bitartez. Areago, batetik, euskeraren beraren euskalkien aldea, eta bestetik, euskera ez dela mintzatzen etxero, bitzuak, izugarritzko oztopoak dira Euskalerrian identitate bakar batez hitzegin nahi dugunean. Europako zatitze lege hau Ameriketako euskal komunitateek errepikatu izan dute, Hontaz, Mundu Berriko euskaldunek honako portamoldera jo dute: Europako nongo eskualdetik etorri eta nongo euskalki mintzatu arauera, Ameriketara elkartu, ezkondu, lagundu, negoziotan aritu, eta jai edo bestelako zelebrazioetara azaldu.

Zenbat euskaldun dauden Estatu Batuetan zail da jakiten, zeren kontatzen bait dituzte espainiar edo frantziartzat. Hala ere, badirudi berrogeitamar mila bat edo daudela (ikus Douglass and Bilbao 1975). Hara joana Euskalerriko baserriatik abiatua da. Legea hala da, salbuespenik badago ere. California. Idaho eta Nevadako artzai beharrendaren hotsari jarraitu zioten baserriko emigranteeak. XIX eta XX mendeetako denboraldi eta egoera diferenteetan barrena. Gauregunean bi euskal talde bila ditzakegu: bateko, naparra eta baxenaparra, nor Californian bizi den, besteko, bizkaitarra, nor Idahon eta Oregon bizi bait dira. Nevada aldean, nahastu gabe ordea, bi taldeotakoekin egin dute bere leku bizitzeko.

Azkeneko urteotan, berriz, zatitze honen aurkako mugimendu bizkor bat sortu da Mundu Berriko euskaldunen artean: the Basque club eta haren jendeaurreko erakuspena, the *summer Basque festival*. Estatu Batuetako euskaldunen arteko eta bai itsasoz honuntzako eta haruntzako euskaldunen arteko komunikazio sendo bati lotzea gogoan edukita, euskal club eta elkarte sare bat zabaldu dute Estatu Batuetako Mendebaldean zehar. Ameriketako euskaldunak zertan diren erakustea da elkarte sareoren azken funtsa.

Euskal jaiak dira club sare honetako lehendabiziko ariketa, baita ere erakuspen neketsuena, bai diruz bai lenez. Esaldi batez, euskal jaiak izan dira azkenengo bi hamarkadeetatik barrena Estatu Batuetako Mendebaldeko euskal jendeen produzio publikorik garrantzitsuenak.

## Giza jokaera eta agertokia

1850, urtetik abiatuta aurkitzen dugu lehenengo euskaldunen berri Estatu Batuetan, Californiako urregorri mehatzegiak ezagutaraztearekin batera hasi bait ziren mundu paraje hauetara etortzen. Hasierakoan mehatzegi lanean ari izan arren, berehala jarri ziren artzai. XIX mendearen amaieran nonbait nagusi ziren euskaldunak Mendebaleko artzaintzan, larre ugari mendi publikoetara joz. Urtaoaren arabera haratonaldian ibiltzen ziren, horan-hemengo larratzeetara artaldea zakurrak gidatuta.

Euskaldunek, beraz, gobernuaren mendiko larre dohainekoak elikatzen zuten artaldea. Denborak joan denborak etorri, haratonaldiko artzaia aldameneko lur jabeen etsai bihurtu zen, berea ez zen lurretan eta soroetan sartzaille eta lapur ikusi zutena. XIX mende bukaeran hasi eta XX mendean segi, gobernuak legeak baieztu eta estatu bakoitzaren lur usuaren araudi berria sartu izan ahala, lur jabeek laguntza ofiziala aurkitu zuten. Legislazio honek haratonaldiko artzaiari -euskaldun emigrantea, hain zuzen ere- bizkar eman zion. Harez gero, gobernuaren mendiko larreak erabiltzekotan, Estatu Batuetako hirirtargoak derrigorrezkoa zen. Bi bide geratu ziren aukeran: bateko, etxeratu; besteko, Ameriketara geratuz gero, hirirtargo amerikatarren nortasun adierazpenei erantsi eta berak erakutsi. Bigarren kasuori atxeki zitzaizkionek lurra erosi, ezkondu, eta nekazarian edo abel-hazkeran ihardun zuten artzaintza alboko utzita. Aldaketa mugimendu honen azalpenik erradikalena 1950. urteetan gertatzen da noiz eta antzematen den euskaldunen artean lanpostu hiritarretan aritzeko inoiz bezalako jokaera bizkortu eta izugarria. Gauregunean, orduan, Estatu Batuetako euskaldunen gehiengoak -Europar zain Mundu Berrian sortu izanak- hirietan bizi eta hirietan lanegiten du.

Herrian herriko euskal ostatuek (The Basque hotel, euskaldun batek -lehenago bera ere artzaintzan ari izana- zabaldutako ostatu bat) sortu zuten artzaintza munduko euskaldunen arteko espazio sozial eta kulturala. Beraien seme-alabek, eta, oro har, geroko euskaldungo hiritarrak, bestelako agertoki sozial eta kulturala hedatu zuten: herrian herriko euskal elkarte edo cluba eta haren urteroko jendeurreko jaia edo festibala. Bi espazioon ezberdintasun nabariena honakoan datza: artzaintza munduko euskal identitatearen agertokiak -ostatua, alegia- euskal taldearen beraren barruan bakarrik adierazten zituen «euskaltasunaren» bereiztasunak; agertoki beronen kontraz, gizarte amerikanoaren begira azaldu zuten «euskaltasuna» geroko clubek eta jaiek.

Jendeurreko lehenego euskal jaia. The Western Basque Festival, Nevada estaduko Reno hirian ospatu zen 1959. urtean, bost mila baino gehiago euskaldun azaldu zirelarik. Festibal honek -berak agertutako antolamenduaren eta eraketaren- egitura zehatza eman zion zerraizkion festibal eta jai publikoen kateari, gaureguneko jai guztien egitura duguna. Jendeurreko jai honen arduradunen helburua zera zen: artzaintza denboralditik euskalduneri erantsitako irudi ezezkoa, orduan ere euskaldunek bizkar gainean neke modura bait zeramaten, deuseztu. Estatu Batuetako Medebaldean finkaturiko ezagupide eta eremu kultural nagusietan barrena euskaltasuna publikoki adieraziz osatu gura izan zuten antolatzaileek halako asmoa.

Jai honen ondore onari beste festibal eta club gehiagoren antolaketak zerraizkion 1960. urteetan zehar, 1970. urteetan hasi ziren zenbait club elkarrekiko harremanak sendotzen, bai eta ere aktibitateak koordinatzen. 1974.eko urtean California, Nevada, Idaho, Oregon eta Coloradoko hainbat clubek North American Basque Organizations (N.A.B.O.) sortu zuten. NABOren betebeharra zera zen: euskalduneri zein erdalduneri (amerikarra) euskal ohiturak eta historia irakatsi, eta, eraberean, bai gazteentzat eta bai helduentzat espazio sozial eta kultural bat suspertu. Musika, dantza, euskera, abestiak eta abar ikasteko udako camping-a, pilota eta mus txapelketak, besteak beste, daude NABOk eratzen dituen ariketa kulturalen artean.

Herrian herriko clubak eta NABOK, bitzuek, laguntzen dituzte lanez eta diruz urtero celebratzen diren udaldiko festibalak. Bagenerrake euskal festibalen produkzioaren ondorioa zera dela: etorkizunaren alde, Estatu Batuetako euskaldunek ezagutu zuten iraganaren esperientzietatik jaregin.

## II. FESTIBALAREN MORFOLOGIA ETA EDUKIA

### Sarrera

1959.eko Ekainaren 6an eta 7an lehenengo «Western Basque Festival-a» ospatu zen Spark-en (Renoko auzoa), Nevada. Gutxigorabehera, bost mila eta sei mila pertsona artekoa, Ameriketako Mendebaldeko zeharretik abiatuta, azaldu zen festibalera, euskal «egin-kizunik» handiena eratuz euskaldunak Mundu Berrira agertu gerotik. Gertaera honen ondorioz, California, Idaho eta Nevadako hainbat euskal komunitatetan Euskal Jaia urteroko eginkizun bilakatu da. Eraberan bertako talde etnikoetan euskaldunena berena agertu da ikusgarrirenetako bat. 1959. urtean baino lehenago, ordea, Ameriketako Mendebaleko euskaldunak gutxi ezagutuak eta ohartuak ziren, eta kontzienteki mantendu zuten heuren burua erdi-ezjututa. Western Basque Festival-ak, beraz, euskal amerikanoen historia kolektiboaren abiapuntu berri bat markatzen zuen (Douglass-ek 1980: 115).

1959. urtean «The Western Basque Festival» celebratu zuten euskaldunek Renon. Ondorioa garrantzi handikoa izan zen. Ameriketako euskaldunek jaialdiak antolatzeari begiratuz gero, honako bereizketa dakusagu: (i) XIX mendearen bukaeran eta XIX mendearen hasieran

euskal jaiak mendian izaten ziren, pribatuak, eta, kasik sekretu gisa, gizartetik aparte: (ii) 1920-1960 bitarteko luzetxoan zenbait jai publiko eta elkarte sozio-kultural agertu ziren, bata bestetik isolatua, eta koordinatu gabeak zirenak; eta (iii) 1960. urtetik aurrera, noiz komunitate-festibalak instituzionalizatu bait dira data jakinetan udan zehar. Hirugarren denboraldi honetako festibalak 1959.eko Western Basque Festival-ak ezarriko moldeari darraizkio. zeinak modu honetara eratu bait zuen

*programa (1):*

*Ekainak 6, Larunbata*

Euskal Ostatu eta Tabernetan elkartu.

7:30 p.m. -Nobleentzako Ohorezko Afaria Dick Graves' Nugget Jokoetxeko Virginian Room-en.

10:00 p.m. -«La Jota» eta guztientzako dantzaldia Virginian Room-en. Jim Jausorok eta beraren taldeak joko du musika.

*Ekainak 7, Igandea*

9:00 a.m. -Renoko Santo Tomas de Aquino Catedralean Euskal Meza, Aita Jose Peñak emanda.

11:00 am -Estatu Batuetako Patrick A. McCarran senatore izan zenaren ohorean meza Renoko Mountain View kanposantuan.

12:00 eguerdia. -Artzaitxakurren Txapelketa eta Erakuspena Sparks-en.

*Igande Arratsaldez Sparks-eko Dick Graves' Nugget-ean*

1:00 p.m. -Festibalaren hasiera.

2:00 p.m. -Mus Txapelketa Virginian Room-en.

Festibalaren Programa: 2etatik 5ak arte.

Dantza Erakuspena. Boiseko Delfina eta Diana Urresti.

Euskal kantak, Winnemucca-ko talde gaztea.

Harrijasotzaile eta Txinga-erote Txapelketak.

«La Jota» Dantza, Renoko dantzari talde gaztea.

Dantza Folklorikoa, Idahoko dantzari talde gaztea.

Dantza Bereziak, Boiseko Diana Urresti, Miss Boise 1959.

Artzai eta Betzainen arteko sokatira.

Euskal Dantza Erakuspena, San Franciscoko Teresita Osta.

2:00 p.m. -Españako embajadoreari Jose Maria de Areilza ongi-etorria.

Frantziako embajadoreari Herve Alphan ongi-etorria

Txistu eta Dantza Erakuspena, New York-eko Jon Oñatibiaren Zamalzain Taldea

4:00etatik 7:00ak arte- Barbakoa Handia

Boiseko Jim Jausororen Taldearen musika.

5:00 p.m.- Zazpi probintzietako euskaldunak elkartu.

7:00 pm- Españako Los Churumbeles Taldea.

8:00 pm- Denentzako «La Jota» dantza.

---

(1) Iturria: festibala sostenganatzen zuen Sparks-eko Casino edo Jokoetxeak informazio antzera argitaraturiko iragarkia.

Festibalak interpretatzen ari: alde zurretiko zenbait ohar

Festibalak direla eta, zera esan dute antropologoek: oro har, balore kulturalen ritualizazioak dira jaiak (ikus Turner 1982b; Manning 1983b; Bruner 1984; McAloon 1984; Falassi 1987). Lengoaia berezi bat osatzen dutela adierazpide kulturek dio portaera ritualari zuzenduriko itaunketa akademikoak. Alegia, esankorra dugu rituala, gauzak esateko molde bat. «Esankortasuna», beraz, alde ezinezko elementua dugu errituzko eginkizunetan. Ritualaren eta mintzairaren arteko elkartasun metaforikoaren haritik segituz, komunikazio eta lengoaia sinboliko modura ikasiak izan dira festibalak eta jaiak (ikus Leach 1976). Rituala «egunerokotasunaren» pare jartzerakoan hartzen du esangura zelebrazioaren zabalera sinboliko honexek.

Zenolako erlazioa sortzen den bion artean -eguneroko eta ritualeko dimentsioen artean, hain zuzen- ordea, ezbaida luzeko kontua da antropologoek eta zelebrazio-ikerketen teorikoen izkribuetan. Zenbaitetan -ihauterietan bereziki- jaien lengoaiaren bidez eguneroko portaera sozialak itzuliak, hankaz gora, agertzen dira plaza aldean, eta kasu honetan «itzulera», edo «inbertsio sinbolikoaz» mintzatu dira antropologoak (ikus Babcock 1978; Bakhtin 1968). Beste zenbaitetan, komunitate -zelebrazioetan hain zuzen, jaiak jende baten «iragan kolektiboan»- batzutan historikoa, bestetzutan mitikoa-espresatzen dute. Eguneroko aspektu sozialetatik entresaka eginez, gai batzu «biziagotu» edo «intensifikatzen» dira, bestetzu isiltzen direlarik (ikus Duvignaud 1976). Itxulerak, handiespenak, eta isilerak -banaka edo nahasian- alde eta kontrast azaltzen dute begibistara. Edo Cox-ek dionez «juxtaposizioa» -ondorapena- sortzen da (Cox 1976). Laburki esanez, rituala egunerokotasunaren ondora ekarrita, kontras eta ezberdintasun dakusagu.

### The Western Basque Festival (1959)

Datozen lerrootan zehar Western Basque Festival-az ari izanen naiz. Festaldi honen eskema ritualaren eta garai hartako egunerokotasunaren arteko ezberdintasun eta kontrasteak «tirabira dramatikoak» deritza. Nire analisiaren argumentua honakoan datza: Western Basque Festival-a zela eta, euskaldunek «rite de passage» bat (ikus Van Gennep 1960) antzetzutu zuten, giza talde oso bat bezala, gizarte amerikanoaren aurrean.

Ipar Ameriketako ikerketa etnikoek «etorkinen ibilbide sozialaz deborazko begirada (2) bat» behar dutela esan du Déglek (1978:35). Hala eginez -autoreak dio- status aldaketa bat begibistara azaltzen da. «Etorkin», «arrotz» edo «kanpotar» giza statusetik «talde etniko» statuserako saltoak burua agertzen du, alegia. Salto hauxe bera ikus dezakegu Ameriketako euskaldunen historia kolektiboan. Garaiko beltzen eta hispanoen mugimendu politiko eta sozialak eragile, 1960,eko hamarkadan zehar «melting-pots» filosofia ofiziala eta nagusia indarra galtzen hasia zen, eta «ethnic statusaren» kontzeptio bat zabaltzenago. Euskaldunen dimentsio historikoa eta orduko egoera soziala kontutan harturik. Western Basque Festival-ak gisa honetara darakus bere burua: euskaldunak ulerpide sozial berrietaz baliatuz, heuren identitate sozialaren interpretapen diferente bat finkatzen ahalegin ziren. Batetik textuingurua, eta bestetik jaialdiaren ondorena -bai euskaldunen komunitatean eta bai eritzi publikoan- aurrean edukita, «status berriaren ospakizun» jo dezakegu festibala.

Festibalaren eraginaz obeto jabetzekotan, garai hartako Estatu Batuetako Mendebalean bizi ziren euskaldunen zirkunstantzia sozialetaz gogoratzea komeni dugu: 1/ estatistika ofizia-

(2) «a timely focus on immigrant processes» dio ingleserazko iturburuak

lek frantses edo español nazio-kategoria hutsak erabiltzen zituzten; 2/ euskaldunak geografi-koki bi talde nagusitan zeuden sakabanatuta, bizkaitarrak eta (España zein Frantziako) naparrak; 3/ Ameriketako Mendebalaren zabalerak ez zuen ametitzen erlazio sakon eta luzerik herri eta alderdi geografiko ezberdineko euskaldunen artean; 4/ iraganean Ameriketako artzaintzari trinko lotuta, oraingoan nekazaritzan, abel hazkuntzan eta hiri lan-ihardueretan ari ziren; 5/ bertan sorturiko euskaldunak bizimodu amerikanora jo zuten; eta 6/ ganbio sozial eta kultural handia gertatu zen arren euskal komunitatean, artzaintzan jasotako irudi negatiboa -haratondiko artzaiarena hain zuzen- nolabait zirauen taldeari erantsita.

Zirkunstantzia hauen jakinean zeuden festibalaren antolatzaileak, zeren eta helburutzat bait zituzten, batetik, ezezko irudia deusezte, eta, bestetik, baiezkor berri bat plazaratzea. «Mendiko bi aldeak egin nahi genitue» («We wanted to do both sides of the mountain») esan zuen Peter Echeverriak -Nevadako senatore eta festibal antolatzaile- Pirineoetako (Españako eta Frantziako euskaldunen arteko) zein Sierra Nevadetako (Californiako naparren eta Idaho-ko bizkaitarren) mugak desegin gura zituztela festibalaren bitartez azpimarratu nahirik. Jaialdiaren bigarren xedeari begira, zera erantsi zuen Echeverriak: «euskaldunok basotik irteko garaia genuela sentitu nuen» («I felt it was time for us Basques to come out of the woodwork! »). Hau da, Echeverriak irudi berri bat projektatu nahi zutela indikatzen du: basotik, menditik, artzaintzatik (egoera honi datzekion «emigrante» «kanpotar» statusaren irudi sozialetik alde egin) eta zibilizaziora, hirira (bertako «hiritar», «citizen», «ciudadano» statusera, nazionalitate amerikarrera hain zuzen) saltoa egiteko zubia jarri gura zuten jaialdia zela (3) medio.

Ikusi dugunez, Echeverriaren hitzetik euskal irudi berri baten desira dario, Hauxe desira eta nahia. Ordea, holakorik gertarazirik ba al dago? Nola daiteke festibal folkloriko bat horrenbeste eragile suertatu giza harremanetarako munduan? Hemen ideien bidezko-tasuna edo legitimazioa nondik datorren eta zertan datzan galdetzen ari gara. Western Basque Festival-aren ondorena ikusgaitza zen. Nork jakin ahal izango zuen zer ekarriko zuen? Zaila asmatzen. Hospe eta trageria, biak, zeuzkaten emaitzatzat. Arraskasta handia izateko, estrategia bikun bat hedatu zuten antolatzaileek.

Alde batetik, barnekoa, euskal komunitate bera, bateginik eta irudi homogeneousko gisa plazaratu nahi izan zuten. Hau da, festibala Estatu Batuetako Medebaldeko euskaldun denen festibala zela -batetik- antolatzaileek esan, eta -bestetik- euskaldunek berek onartu eta lagundu behar zuten. Egitasmoa legitiimatzekotan antolatzaileek hartu zuten bidea festibaleko komitearen hautapenean argi eta garbi ikusten da: eskualde eta belaunaldi ezberdinetako izen handiko euskaldunak aukeratuak izan ziren.

Bederatzi gizon zeuden komitean, zeina ongi orekatuta bait zegoen, bai belaun alde-tik (haietarik hiru Euskalerrian sortuak eta sei euskal amerikanoak) eta bai eskualdetik (bost euskal frantses, bi napar eta bi bizkaitar). Hala egitea komeni zela erabaki zen. Euskalerrian jaiotako hiru gizon ongi ezagun sartzeak etorkinen generazioak festibala onartua izan zedin indartu nahi zuen. Hau funtsezkoa zen, zeren eta etorkinek pentsatzen bait zuten Ameriketara sorturiko euskal seme-alabek galdua zutela heuren hereditentzia kulturala, batez ere axolagabekeriak eraginda (Douglass-ek 1980:122).

Geografia ikuspegitik begiraturata ere, nahiko portera simbolikoa suertatu zen, zeren festibala Renon ospatu bait zen. Californiako (naparrak) eta Idaho-ko (bizkaitarrak) euskaldunek Nevada zuten erdiunetzat, non bi komunitateetako euskaldunak bizi bait ziren. Junto bizi baziren ere, ez ziren nahasten, komunitate bakoitzak bere aktibitate kulturelek eta giza harremanak aparte bilakatzen zituzten eta (Douglass and Bilbaok 1975: 335-342).

(3) Echeverriaren aipuak Douglass-engandik (1980:120,12 ) hartuak dira



Beste alde batetik, kanpokoari begira -hots, textuinguru amerikanoari aurre egiteko- bi modutan saiatu ziren festivalari indar sozial eta babes politikoa eranstean. Bateko, Sparks-eko Jokoetxe famatu batek laguntzen zuen publikoki jaialdia. Beronek «errespeto kutsu handia ematen zion festivalari eskualdeko erdaldunen aurrean» (Douglass-ek 1980:124). Besteko, bai bertako bai Nevada estatuko bai U.S.A. federazioko politikoak, eta bai Españaiko eta Frantziako enbajadoreak agertu ziren, antolatzaieek gonbidatuta. Eginkizunari, beraz,

garrantzia sozial eta politikoa eranstean zitzaion, eta, ondorioz, zenbait euskaldunek zeuzkaten beldurrei -heuren euskal etnizitatea plazaratzeak ekarri ahal izango zituen lotsen edo, areago, erasoen beldurrak -zeutseten (Douglass-ek 1980:125).

Geertz-en (1973:412-453) eta Turner-en (1974, 1977, 1982) lumei jarraikiz, zelebrazio ritualak kontextuak dira kontextuak non komunitateko bizitzaren esparru politiko, sozial, ekonomiko eta sinbolikoak azalarazten bait dira. Ospakizun festiboek iharduera kulturalen jenero bat osatzen dutela, «drama sozialak» izenarekin deritzenak, bota du Turner-ek (1974,1982). Honetara, Western Basque Festival-ak «oinarrizko antzezpen dramatiko» bat (ikus Cohen 1974) plazaratu zuen, zeinaren bitartez euskal irudi berri bat agertzen bait zien bai bertako euskaldunei bai bertako erdaldunei. Zentzu honetan, beraz, ulertu behar da 1959.eko jaialdiaren azterketa hau, hots, festivalak «rite de passage» kolektibo bat dramatizatzen zuelakoa: irudi sozial eta kultural arazodun batetik -etorkinen helburuen inguruan errotu zena Ameriketara artzaitza zela medio- beste talde-irudi gaituago baterako- euskal amerikanoen helburuen inguruan errozten ari zena- iraganbidea publikoki markatzen zuena.

Morfologia eta estetika aldetik begiratuta, lehenengoz, Euskalerriko baserrien mundu sozial eta kulturalen irudiak aurkezten zituen festivalak jendeurrekoan: euskal meza, dantzak, kantak, soinuak, mus saioak, eta kirolak, besteak beste. Bigarrenez, Ameriketako euskaldunen bizimoduaren irudiak agertu zituen: artzai-kanpamentuak, artzaitzakurren erakuspena, beltzai eta artzai arteko sokatira txapelketa. Estatu Batuetako Patrick A. McCarran-en oroimenez meza -bera bait zen artzai berriak etortzeko legearen zuzpertzaille 1950.etakoa hamarkadan-, eta Ameriketako Euskal Ostatuetan prestatzen ohi ziren janariak barbakoa gisa zerbituta.

Irudiok Pirineo mendietako heredentzia kulturala bezala bateko, eta Estatu Batuetako Medebalaren eraketa modura «naziogintza» hain zuzen- besteko, plazaratu ziren. Iru-diok, berriz, ez zituzten antolatzaieek aurkeztu, euskaldunek Mundu Berrira ekarri zuten helburu sozialak publikoki esateko, baizik eta Ameriketako euskaldunen «historizitateaz» mintzatzeko. Ber-formulazio sozial honetan iraganeko konfliktorik ezeztu nahi izan zenez gero, hots ordenu sozialaren ulerkera ofiziala errespetatu nahi izan zenez gero, eraketa sozialaren erdiguneari bazterrak erantsi nahi izan ziren. Gizarteko bazterra bere kabuz, berak halaxe erabakita, gizarteko erdigunera urbiltzen zen kontzepzioz zein ihardueraz. Arrisku eta enbido sozialik agertu ez, eta euskaldunek nahiz erdaldunek bai ekonomikoki etabai politikoki lagundu zituzten festivala eta festivalaren esangura.

Lerrootan defendatzen ari naizen «rite de pasagge» delako argumentua obeto ikusten da «errespetoaren» ideia aztertuz gero. Garai hartako egunkariak, prentsa herritarrek, bertako jokoetxeek eta polizia berak burruken, detentziorik eta iskanbilarik eza azpimarratu (4) zuten- nahiz eta bost mila pertsona baino gehiago ibili, gehiengo kanpotarra, festivalak iraun zuen bitartean. «Errespetoko jendea» euskalduna zela euskal taldeetatik adieraztea eta taldez kanpotik hala ikusi eta hala baieztatua izatea oso esanguratsua zen zeren eta orduratsu arte euskalduna, Mathy-ren hitzetan ezarrita, «ordenu sozialerako gizabanako arriskutsua» (1986a: 114) zela hots zabalekoa bait zen Ameriketara zehar.

(4) Robert Laxalek egileari esana, elkarren arteko berbardian

1959.eko festibal hau «rite de passage» bezala interpretatzekoa dela saiatu naiz frogatzen orain arte. Ordea, jaialdiak ez zuten «transizioa» edo iraganbidea bakarrik seinatzen. Euskaldunen historiari egin diogu so Western Basque Festival-etik barrena, eta zera deskubritu dugu: aldaera sozialak, ganbio kulturak, transizio ekonomikoak, eta identitate definizio desberdinak. Forma edo morfologia huts modura begiratu eta «rite de passage» delakoa aurkitzen dugu. Baina, zein da erritualaren «edukia»?

Jaialdiak, alde batetik, iraganbidea antzeztu zuten; bestetik, «asmatu» eta «isolatu» egin zituen zenbait gai eta irudi zeinetan euskaltasun berriaren definizio kulturala oinarrituko bait zen harez gero. Western Basque Festival-ak, beraz, ber-eratu zuten euskaltasuna. Eta hauxe geure galdera: zein da definizio berriaren edukia?

Has nadin estetik 1959.eko bestaldiak plazaratzen zuten euskaltasuna euskaldunen statusaren eta heuren historiaren «amerikatasuna» gogor bindikatzen zueneko bat zela. Arestian esan bezala, helburu zen irudi eta gomuta onuragarriak bideratzea, txarrak ahanzitza. Amerikanoen eta euskaldunen arteko erlazio sozialak ber-definitu asmotan, festibalak orduko gizartean funtsezko ziren zenbait nozio kultural hartu zituen bere gain. Plazako ihardueran, beraz, «oinarrizko sinbolo kulturalak» (Ikus Ortner 1973) eta «paradigma kulturalen erroak» (ikus erner 1974.1982) lanean ari ziren. «Amerikatasuna» gorpuzteko erabiltzen ziren nozio kulturalak -hala nola demokrazia, askatasuna, komunitatearen ethos-a, heredentzia, naziogintza eta bezalakoak- amerikanoek ematen zieten esannahiaz betidanik euskal taldearekan balira bezala aurkeztu ziren. Noziook, Ameriketara erantsirik balioaz jantzirik, zeuden euskaltasun berriaren mugaketan. Euskaldunak, eraketa sozialaren bazter bait ziren, eraketaren sozialaren erdiguneko mintzaira bindikatzen zuten. Honela eginez, erdigune-bazter hartu-emanak diferente tankeratuta agertzen ziren.

Jaialdi bat dugu identitate berritsu bat bideratu asmoz, «identitate etnikoaren asmakizunik» -Douglass-ek (1980) jarri duen legez-besterik ez dena. Western Basque Festival-a ez zen ondo pasatzeko, jendeak debertitzeko bakarrik antolatu. Bazen hantxe bertan egitasmo politiko bat eta lengoaia ideologiko berezi bat. Jaialdiak «plaza» bat eratu zuten, non iharduera-espazio berezi bat kreetzen bait zen: bateko, gizarte amerikanoaren eta euskal taldearen arteko «berbaldi bat gertarazi gura zen; eta besteko, euskal talde baten esperientzia sortarazteko «gaiak» eta «irudiak» bideratu zituen, euskaldunak -bai etorkinak eta bai berauen seme-alabak -gero eta talde heterogeneoaga zelarrik, eta gero eta gehiago sartuak zirela Amerika bideetan.

Nagusiki, zenbait iruditan barrena bi gai sozial eta nozio kulturaletara jo zituen festibal honek: alde batetik, euskal heredentzia, eta, bestetik, amerikatasuna; biak bateginik, gauza bera zirela adierazten zutelarik antolatzaileek. Nevada aldeko Elko herriak urtez urte antolatuko zuten jaialdiak azkartuko zituen bi gaiok denboran zehar.

## 1964.eko First National Basque Festival-a

Nevadako eskualdeetan artean Elko County dugu. Euskaldun asko artzai ibilitako tokia da. 1940. urterako nonbait hango artzaintzako kontuak bertan bera utziak ziren. Bertako euskaldunek heuren «picnic» edo erromeria urtero ozpatzen bazen ere, pribatua zuten, «Elko Euzkaldunak Cluba», berriz, 1959.eko Abenduan eratu zen, eta beren lehenengo picnic publikoa 1960.eko Uztailan suertatu zen. 1964.eko Uztailaren 4ean -Nevada Mendehurrenaren data bait zen -Elkoko jaialdia «First National Basque Festival-a» izendatua izan zen. Denborak joan denborak etorri, Elkoko picnic-a Ameriketako Mendebaldean zeharreko euskal jaialdirik inportanteenetariko bat bihurtu da.

Arestian esan bezala, Elkoko festibak europear herendentziaren eta amerikatasunaren gaitan sakondu eta gaiok adierazteko irudiak eta estetika landu egin zituen. Hau da, 1959.eko Western Basque Festival-aren aldean, 1964. urtean Elko Euzkaldunak Clubek plazaratutako First National Basque Festival-ak mezuaren sinbologia egokitu eta obatu zuen. Antolatzaileek, alde batetik, festibalaren jite amerikarra sendo azpimarratu zuten: 1/ Uztailaren 4ean -hots, Estatu Batuetako Independentzia Eguna- nazioaren ospakizun garrantzitsua bait da, zebebratu zuten jaialdia; 21 gertakizunari «National» -nazionala - zeritzoten; eta 31 euskaldunen eta Nevadako estatuaren arteko harremanak iraganean errotuta agertarazi zituzten Nevadaren Mendehurrenaren ohorez jaialdia ospatzean. Laburki esanik, festibala antolatzearen bitartez, euskaldunak, bereziki Nevada estatuko, eta oro har Estatu Batuetako, eraikintzan aspalditik bizkor arituak zirela finkatu nahi zuten antolatzaileek jendearean.

Beste alde batetik, Elkoko Euzkaldunak Club-aren jaialdia luze aipatua da programara ekartzen duen euskal sinbologiarengaitik. Harrijasotzaile, aizkolari, kantari, bertsolari ondo ezagunak eta puntakoak kontratatzen dituzte, Euskalerritik Elkora abaitu eta bertako bestaldian saia daitezten.

1964. urtean geroztik festibala «nazionala» izenez ezagutzen da. Normalean euskaldun gehien erakartzen duen ospakizuna izaten da urterik urte udaldiko festibalen artean. Badaude zenbait arrazoi: 1/ Elko herrian bizkaitar asko bizi badira ere, napar ugari dago, zeinak Idahoko zein Californiako euskaldunek Elkoro lagunak bisita ditzaten bait dakar; 2/ arduradunek bai Euskalerriko eta bai Mundu Berriko kirolari, kantari, bertsolari, soinuari eta dantzari famatuak dakartzate, zeinak programa ineresgarri eta itxurazkoa ematen bait du; 31 Nevadako Komertzio Ganbarak, bertako jokoetxeek eta negozio jabeek sosten-ganutzen dute festibala, esan nahi bait du, finantzak osasun handiz dabiltzala eta publizidadea hots zalalekoa dela; eta 41 Estatu Batuetako zenbait telebista programa nazionalek informatu eta erreportaiak ateratzen dituzte festibalaz.

Bertako club-ak argitaratzen du programa liburuxka gisa. Sarrera-ticketarekin batera zabaltzen da liburuxka hau dohain. Atala dauka non elkartaren lehendakariak urteko festibalaren eskeintza eta esangura ezartzen bait ditu. Baiezta daiteke Euskaldunen «historizitate» Amerika nazioaren erikintzan gai nagusia izan zela 1960. etako hamarkadan. Esate baterako, 1964. eta 1965. Urteetako mezua artikulutxo berbera dugu, H.J. Swinney jaunak, Idaho Historical Society-ren zuzendaria bait zen, sinatua, eta «The Basques» izenburupean agertua. Honela irakurtzen dugu lerroalde batean:

Lehenengo mendean zehar sartuak ziren hamaika bat euskaldun Estatu Batuetako Mendebaldera, berehala eta bihotzez jo zutelarik hirirtasun amerikanoaren bizimodu berrietara, heuren tradizio historikoak ahaztu gabe baina (1965.eko Festibalaren programa).

1968.eko festibalaren programak clubeko urteko ihardueren berri ematen zuen. Baita ere, artikulua lehenengo urteetako jaialdien arrakasta apimarratzen zuen. 1959. urtean zeuzkaten hogeitazazpi bazkiderengandik 1968.eko berreun eta hamazazpirenganako igoera nabarerazten dute. Zera diote:

Lehenengo festibala arrakasta izugarrikoa izan zenez gain, Nevada estatuaren Mendehurrena ospatzen zuten eginkizunetan nabarmenetako bat gurea izan zela aldarrikatua izan da. Geroztik, urtez urte igo da festibalaren fama eta izena (1968.eko festibalaren programa).

1969. urtean Elko County-aren Mendehurrena zen. Elko Euzkaldunak Clubak horixe bera zebebratu zuen euskal jaia zela medio. Programak sarrera gisa zekarren oharra,

«Mende Batez Dointasunez Bizi» («A Century of Proud Settlement») izenburupean agertua, edukiak duen garrantziatik, hona dakart euskeratuta:

Artzai euskalduna, aurpegitik hautsa kendu, txistuz txakurra bere ondora deitu, eta zuhaixkez estaliriko harkaitz baterantza zuzendu zen.

Azaroa 1989, herrialde rabal berri honetan pasatuxea zuen laugarren urtea. Ibili ala, purpuraz, zurizko mendietara begiratu zuen, laurogei milatara, iparraldera, zituen mendiak. Uda iragana zuen hantxe artaldeak, bera eta bere txakurak jagole zirelarik. Hantxe, iparraldean zuen Europako Pirineo mendietako etxea gogora aratzen zioten lurrak. Zizpuru batez erantzun zion etxetikako hotsaren irrikari. Nostagia alde batera utzita, lur zahar hartako errealitateak ikusi zituen -lur zahar hartako jende duin, langile, setatia; Españaren eta Frantziaren indarkeria- askatasunik eza, nahiz beraren nektarra jario bihotz euskaldun bakoitzari. Hau guztia eta gehiago zetorren bere gogora -etxetik egindako ihesa; itsas zabala zeharkatuz Hautaturiko Lurrerako ihesa- Amerika, hots egin zion lurra, «Emaidazu zure... behartsua, zapaldua ...»

Taupada bizkor batek, kurrinkada leun batez legunduta, txakurrarenak bait ziren, ametsa eten zuten. Orduan jabetu zen harkaitzaren gainean zela. Beraren aurrean hor behean Humboldt River Bailerak korritzen zuen, kanpainako dendaz puntuztatuturik, ibaia eta trenbideak gurutzatzen zituenak. Trenbidea! Hona ekarriak zituen ardiak, arkumeak trenean sartu eta Ekialdera eraman zituzten. Bere Mundu Zaharreko heredentzia hemengo lur zabal, ikaratsu, berri, bakarti eta aukeraz beterikoari uztartzearen ondorioa.

Aske? Bai! Bakarti? Bai! Eta bakartasuna samin bihurtu zen dendetan zehar mugituta txinoen solasa entzuten zuelarik keltarren irriparraz eta irlandarren laguntasunezko irriaz nahastuta. Jendeok ere egin zioten kasu Ameriketako laminek deiarri- eta trenbidea ezarri zuten.

Tristura berriro ere haren bihotzean. Bapatean, ordea, tristura handitu zitzaion pentsatu ala: «Guretako gehiago etorriko da. Askatasuna daukadana! Gaudituko dut bakartasuna!»

Uztaila 1969, Elko, Nevada, Seigarren National Basque Festival-a, eta hona hemen ospatzeko garelama hamaika urtetako heredentzia euskalduna eta ehun urtetako Elko aldeko historia.

Hala ere, hau ez da zelebratzen dugun guztia. Aurtengo mendehurrenaren jai hau dela eta, helburutzat ez dugu euskalduna gurtzea. Gure xedea zera da: euskaldunen dantzen, janarien, hizkuntzaren eta kirolen bitartez, geure etorkia gogoratzen digutenak, askatasunaren gozotasuna ukan nahi dugu gomutan, bizitzaren hastapenak gogora ekarrita Ameriketako Estatu Batuak agurtzen ditularik.

Gaur, dudarik ez, artzai euskaldunaren gogoa ez dago bakarrik gure artean. Ehun urte joan dira eta haren aberriaren ametsek eta tradizioak soro emankorra aurkitu dute hazteko.

Aske? Bai! Bakarti? Ez!

Jaungoikoak bedeinka zaitzala zu zeu eta gure herria.

(1969.eko festibalaren programa)

Hemen, artzai euskaldunaren bakartasuna metaforikoki hedatu da komunitate etnikoaren marginazioaren bakartasunera, gizarteko bazterretara hain zuzen. Elkoko euskal clubak irudi batzu jasotzen ditu non Ameriketako historian zehar funtsezko gertatu diren zenbait nozio eta kontzeptu -hala nola «askatasuna», «aukerabidea», «norberaren seurtasuna» eta Amerikaren beraren «nazio-erakintza»- bideratu nahi bait ditu. Ondorio zera da: clubak seinatlatzen du iharduerazko espazio bat non euskal taldea Elko Countyko historian taldearentzat berarentzat tokia bilatu nahi bait du, euskalduna ekinezko egile

moduan agertzen duena historian zehar. Ospakizunean zehar gogorazitako nozio amerikano nagusio zirela medio, jaialdiak «soro emankorra taldearen identitate barritsua hazteko» hornitzen zuten.

Douglass-ek (1980) ederki interpretatu duenez, Renoko jaialdia «identitate etniko baten asmaketan ari zen». Baita ere, Renoko festibalak statusaren aldaketa markatzen zuten («etorkin» euskaldunetik «etniko», euskaldunera). Beste alde batetik, festibal honek euskaltasuna bide berritan kanalizatzeko «gai» nagusia botu zuen: europear ondoretasuna Amerika nazio-erakintzari eranspena. 1964.eko Elko aldeko picnic-ak, bestealde, gai beratu jaso, sakondu, finkatu eta zabaltzea hartu zuen bere gain.

Robert Laxaltek, Western Basque Festival-aren antolatzaile, honelaxe adierazi zidan jaialdiaren ondorena euskal komunitatean:

ezkutuan genuen identitate bat eman zigun festibalak, Geure aitamengan euskalduna izatearen duitasuna birpiztu zuen. Eta, azkenik, geure seme-alabengan arrakasta haundia izan zuen, zeren eta «ethnic» aroa orduan hasten ari bait zen Estatu Batuetan. «Ze demontre den euskaldun bat?» galderari entzuteko gai ziren.

Herritik -baserri europearreko zein artzaintza amerikatarreko ikusmiratik -hirirako - «garaia zen euskaldunak basotik irteteko»- iraganbidean, beraz, Ameriketan jaiok

Amerika naziokoak zirela baieztu beharrean aurkitu zituzten beren buruak, lehenengo natibismoaren deabruak eta xenofobia, artzaiak noiz behinka ezagutu zituenak, berriz azalduko ote zirenez zuhur zirela (Mathy-k 1985: 238-239).

Denborak joan denborak etorri, Amerikasunaren adierazbide bilakatu zen udako euskal jaialdia edo picnic-a, beronek darabilen lengoia sinbolikoaren indarra zela medio.

## BIBLIOGRAPHY

- BABCOCK, Barbara 1978 (ed) *The Reversible World*. Ithaca and London: Cornell University Press.
- BAKHTIN, Mikhail 1968 *Rabelais and His World*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- BATESON, Gregory 1972 «A Theory of Play and Fantasy». In *Steps to an Ecology of Mind*. pp. 177-93. New York: Ballantine Books.
- BURNER, Edward (ed.) 1984 *Text, Play, and Story*, Washington, D.C.: American Ethnological Society.
- CAILLOIS, Roger 1979 *Man, Play and Games*. Trans. Meyer Barash. New York: Schocken Books.
- CLARK, Ann Nolan 1975 *Year Walk*. New York: Viking Press.
- COHEN, Abner 1974 *Two-Dimensional Man: An Essay on the Anthropology of Power and Symbolism in Complex Society*. Berkeley and Los Angeles: University of California Press.
- COX, Harvey 1969 *The Feast of Fools: A Theological Essay On Festivity and Fantasy*. Cambridge, Mass: Harvard University.
- DOUGLAS, William A. 1980 «Inventing an Ethnic Identity: The First Basque Festival». In *Halcyon*. pp. 115-30. Shepperson, Wilbur S. (ed.). Reno: Nevada Humanities Committee.
- DOUGLAS, William and Jon Bilbao 1975 *Amerikanuak: Basques in the New World*. Reno: University of Nevada Press.
- DUVIGNAUD, Jean 1976 «Festivals: A Sociological Approach» In *Cultures* 3: 15-25.
- ETULAIN, Richard W. 1974 «Basques of the American West: Some Problems for the Historian». Paper read at the *Idaho History Conference*, Boise, Idaho, March 9.
- 1977 «The Basques in Western America Literature». In *Anglo American Contributions to Basque Studies: Essays in Honor of Jon Bilbao*. pp. 7-18. Douglas, William A., Richard W. Etulain, and William H. Jacobsen (eds.). Reno: Desert Research Institute Publications on the Social Science.
- FALASSI, A. (ed.) 1987 *Time out of Time*. Albuquerque: University of New Mexico Press.
- GEERTZ, Clifford 1973 *The Interpretation of Cultures*. New York: Basic Books, Inc., Publishers.
- 1983 *Local knowledge*. New York: Basic Books, Inc., Publishers.
- LAXALT, Robert 1974 (1957) *Sweet Promised Land*. New York: Harper and Row Publishers.
- LEACH, Edmund 1976 *Culture and Communication*. New York: Cambridge University Press.
- MANNING, Frank E. 1983a (ed.) *The World of Play*. New York: Leisure Press.
- 1983b (ed.) *The Celebration of Society: Perspectives on Contemporary Cultural*

- Performance*. Bowling Green, Ohio: Bowling Green University Popular Press and London, Ontario: Center for Social and Humanistic Studies.
- McALOON, Jhon (ed.) 1984 *Rite, Drama, Festival, and Spectacle*. Philadelphia: Institute for the Study of Human Issues.
- ORTNER, Sherry 1973 «On key symbols». In *American Anthropologist* 75: 1338-46
- RECALDE, Santos T. 1973 «Deunor» *Euskal Artzaia Ipar-ameriketan*. Kuliska Sorta. n.º. 76. Zarauz, Spain: Itxaropena, S.A.
- TURNER, Victor 1969 *The Ritual Process*. Chicago: Aldine.
- 1974 *Drams, Fields, And Metaphors: Symbolic Action in Human Society*. Ithaca, New York: Cornell University Press.
- 1977 «Variations on a Theme of Liminality» In Sally Falk Moor and Barbara Myerhoff, eds. *Secular Ritual*. Amsterdam: Van Gorcum, pp. 36-51,
- 1982 (ed.) *Celebration: Studies in Festivity and Ritual*. Washington, D.C.: Smithsonian Institution Press.
- 1982 *From Ritual to Theater*. New York: Performing Arts Journal Publications.
- VAN GENNEP, Arnold 1960 *The Rites of Passage*. Trans. Monika Vizedom and Gabrielle L. Coffee. London: Routledge and Kegan Paul.